

BALIABIDEAK

Gure ekoizpenerako gaitasunak kontuan hartuta, ez gara gai ikusten produktua guk fabrikatzeko. Ez dugu esperientzia nahikoa jarduera hori aurrera eramateko. Horregatik, audifonoen ekoizpenean gaitasun handia duen enpresa batekin harremanean jarriko gara eta berak ekoiztuko luke gure produktua. *Beltone* izeneko enpresa estatubatuarra aukera bikaina da, gaur egun munduan botere handia duena, aukera posible bat izan daiteke gure audifonoak bertan ekoizteko. Prozesu honi, hau da, gure produktua kanpoko enpresa batek ekoizteari, externalizazioa deitzen zaio, eta hau funtsezko baliabide bat da.

<https://www.beltone.com/es-es/hearing-aids/beltone-hearing-solutions/hearing-aid-design-and-styles>

Hasiera batetik, ekoiztu behar dituzten pinganilloak, bezeroentzat ahalik eta egokituena diseinatzen saiatuko ginateke. Baina, bezeroaren kexaren bat jasoz gero, hobekuntzak aplikatuko genizkioke produktuari. Aipagarria da, gure produktuak ez dituela sarritan hobekuntzak jasango, hau da, ez du etengabeko aldakuntzarik izango, gaur egungo sare sozialetako aplikazioak bezala, adibidez. Hala ere, teknologia eta osasunean ematen diren berrikuntzen aldaketetara egokituko gara, urteetan zehar teknologiak aurrerapen handiak izaten dituelako.

Audifonoaren patenteak lortuz gero, denbora luze batean beste enpresek ez dute izango gurekin lehiatzeko aukera, ezin izango baitute gure produktua kopiatu. Modu honetara, produktuaren ordezkatze aukera sahies dezakegu.

Erabiliko ditugun baliabide fisikoetan Madrileko denda-fisikoa eta pinganilloak diseinatzeko beharrezko materiala (ordenagailua, diseinurako programa,...) sartzen da. Horrez gain, *Beltonek* guk diseinaturiko produktua amaitzen dutenean, eman egingo digute, gu arduratuko garela banaketaz. Bukatutako produktuak gordetzeko, ofizina txiki izango dugu Madrilen, eta eremu hori ere diseinua garatzeko erabiliko dugu.

Baliabide intelektualei eta giza baliabidei dagokionez, garrantzitsua da sailkatzea bakoitzak ze jardueretan duen gaitasuna. Naroa Perez aplikazioa zaintzeaz arduratuko da, eta horren bidez, kontsumitzaileekin komunikatzeaz. Leire Fernandezek pinganilloen diseinua egingo du programen bidez, gaitasun handia baitu arlo horretan. Uxue Sudupe, gure

produktua kontsumitzailearen eskuetara iristeko beharrezkoak diren gainerako enpresekiko harremanaz jabetuko da, adibidez Gaes edo Beltone enpresarekin negoziatu beharrekoak. Hiru trebetasun hauek gabe, lan zaila litzateke negozioa aurrera eramatea.

Negozio bat aurrera eramateko, diru kopuru bat jarri behar da hasieran. Guk, Uxue Sudupek, Naroa Perezek eta Leire Fernandezek, 3500 euro jarriko ditugu finantza-baliabide bezala. Gainera, 200.000 euroko kreditua eskatuko dugu. Kreditu hau epe luzera itzuliko dugu, hilabetetan itzuliz joango gara kantitate txikietan. Gastuen sistema aztertu ondoren, kreditu osoa 18 urtetan ordainduko dugula kalkulatu dugu. Hau gauzatzeko aukeratu dugun bankua Laboral Kutxa da, azken urteetan esperientzi onak izan baititugu harekin; banku fidagarria iruditzen zaigu.

<https://www.laboralkutxa.com/>

